

## “Dramatismoa kendu behar zaio amatasunari: seme-alabak ez dira hain nekagarriak”

Eva  
Holgado

Familia Ugarien  
Espainiako Federazioko  
presidentea

Lau alabaren ama da Eva Holgado (zaharrenak 17 urte ditu), abokatua, fiskalista eta Madrilen duen legelari bulegoko zuzendaria. Zeregin horiek guztiak gutxi balira bezala, Familia Ugarien Espainiako Federazioko presidentea ere bada, eta hori ere ez da nolanhiko ardura. Estatu osoan 532.928 familia ugari baitaude modu ofizialean erregistratuta.

**Seme-alabak bai edo seme-alabak ez. Zuk zer diozu?** Ikusi egin behar. Kontua da norberak nahi adina seme-alaba edukitzeko aukera izan dezala, eta haren inguru sozialak, ekonomikoak eta lanekoak babesa eman diezaiola erabaki horri. Ez dut esaten mundu guztiak izan behar litzukeela seme-alabak, hori arduragabekeria handia litzateke. Baina baliabideak dituen jendea eta ahal duenari bai, pausoa emateko esango nioke. Nire ustez, dramatismoa kendu behar zaio amatasunari: seme-alabak ez dira hain nekagarriak eta hain astunak, jende askok besterik badio ere. Nik nahiago izaten dut esan erantzukizun bat eskatzen dutela. Seme-alabak opari bat dira, poztasuna, bene-benetan sinesten dut hori. Baina ongi dakit ni nire esperientziatik ari naizela, eta denek ez dutela berdin pentsatzen.

**Espainiako Estatuan, bost etxetik batean ez dute haurrik. Eta gero eta bikote gehiagok egiten dio guraso izateari. Zure ustez, zergatik ote da?** Alderdi bat baino gehiago daude. Lehenik eta behin, emakumea lan munduan sartu delako. Gizonek, ildo horretan, gehiago lagundu behar lukete amatasuna. Gizonaren rola lanari lotzen zaio, baina hein batean eten egin behar luke lotura hori, eta gehiago heldu etxeko zereginei; orkatu egin behar litzateke seme-alabak zaintzeko lana.

Beste bikote batzuen arrazoiak heziketarekin izango dute zerikusia: agian, haur bateko edo biko familietatik etorriko dira. Ez dakite zer den familia ugari bat, eta horren beharrik ez dutela pentsatuko dute. Azkenik, beste pertsona batzuek zalantza egiten dute, seme-alabak bai edo ez. Beren lan ibilbideari ematen diote balioa, aisialdiari, bikote harremanari, eta iruditzen zaie guraso egiteak zaildu egingo dizkiela bizitzako beste alderdi horiek.

**Fisikoki eta ekonomikoki modua izan arren, seme-alabarik ez dutela eduki nahi erabakitzen dute zenbaitek. Berekoiak direla iruditzen al zaizu?** Ez, hori haiek epaitzea izango litzateke. Nik ez dezaket baieztatu berekoiak direla. Nik lau alaba ditudanez arrunt eskuzabala naizela esatea bezala litzateke. Kontua da inguru sozio-ekonomikoak eta lanari eta heziketari lotutako inguruak aukera eman dezatela guraso izateari buruzko erabakia libreki hartzeko, erabaki behar duenari ez diezaiotela trabarrik jarri.

**“Amatasuna esklabotza modu bat da” esaten du Elisabeth Badinter frantziar filosofo eta feministak *Le conflict: la feme et la mère* liburuan (Gatazka: emaztea eta ama). Ados al zaude? Ez, inola ere ez.**

**Badinterrek esaten du emakume askok, 30 urte inguru betetzen dituztenean, presioa izaten dutela beren lan ibilbidea bolada baterako utzi eta ama izateko. Iruditzen zaizu hark marrazten duen egoerak baduela zerbait egiatik, edo amatasunaren irakurketa okerra dela esango zenuke?** Apur bat estremista dela esango nuke, nahiz eta diskurtso horretan badiren egiatik ere baduten ñabardurak. Nik etxetik kanpo egiten dut lan, 22 urte daramatzat jardunean, eta lau alaba

izan ditut. Zenbaitetan, izugarriko ahalegina egin behar izan dut, baina ez dut nire lan ibilbidea alboratu eta nire alabak ere ez. Onartu behar dut nire bizitza pertsonala bazterrean utzi dudala hein batean: denbora gutxiago izan dut neurtzat. Baina horri uko egitea, niretzat, ez da esklabotza modu bat. Amatasuna ez da esklabotza, baina, aldiz, gizarteak familiei babesik ez ematea, hori bada esklabotza.

**Badago amatasun sena, edo gizarteak eraikitako zerbait da?** Amatasun sena badago. Eta aitek ere izaten dute haurrak edukitzeko sena, nahiz eta haien zereginak izan den aitaren zereginei uko egitea lanaren eraginez.

**Jaiotza tasa apaltzen ari da Espainian 2009an geroztik. Guraso ez izatea erabakitzen duten emakumeek eta gizonek zer dute, hazteko beldurra?** Guraso ez izateko erabakiaren atzean, eremu pertsonala galtzeko beldurra dago hein batean. Baina, batez ere, lehentasun kontua da. Hala ere, seme-alabarik ez izatea erabakitzen dutenek badakite zertan ari diren, eta, beraz, errespetatu egin behar da haien erabakia.

**Seme-alabarik ez izatea erabakitzen duten pertsonen... bizitzako gauzarik onena galtzen dute?** Zalantzarik gabe.

**Guraso izateari uko egiten diotenak gero eta gehiago izateak zer-nolako ondorioak ekarriko ditu epe ertain eta luzean?** Nire iritziz, Estatuak aukera eskaini behar luke seme-alabak nahi dituenak izan ditzan. Kontrako joeraren ondorioak oso larriak izango lirateke, arriskuan jarriko lukete eta ongizate estatua. Haur eskasia arazo handia da, eta aurre egin behar zaio. Horretarako, premiazkoa da eztabaida handi bat egin dezagun guztion artean, eztabaida soziala, ekonomiko eta belaunaldi artekoa.